

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Autobidearen
gaineko auzia /08**

BERTSOLARITZA
**Ikasleen bertso
emanaldia /09**

LEINTZ GATZAGA
**Maiatzeko osoko
bilkura /10**



'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'

GAUR, EGUBAKOITZA, 22:30EAN KIROL ETXEAN

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALTZAINGOA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 29
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 30
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

OHARRAK

'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'
Gaur, egubakoitza, 22:30ean eskainiko du Gorringo taldeak *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanari kirol etxean. Sarrera aurrez hartuz gero 6 euro dira, eta bertan 8 euro.

ERABILITAKO OLIOAK BATZEKO ZERBITZUA

Erabilitako sukaldeko olioak batuko dituzte astelehenean, maiatzak 31. Azokan egongo da automobila, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

KONTSUMO BUS AUTOBUSA

Kontsumoaren gainean informazioa ematen duen Kontsumo Bus 2004 ekimeko autobusa egongo da gurean egunean, ekainak 3, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Pedro Guenetxea I. memoriala egin zuten


Lan handia egin zuen Pedro Guenetxea aretxabaletarrak txirrindularitzan; Dorletako Ama txirrindularitza eskolako fundatzaileetako bat izan zen. Hori horrela, 1995eko maiatzaren 28an lehenengo memoriala egin zuten bere oroimenez. Geroztik, urtero egin izan dute maiatz inguruan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korotz"

Ardi, koneju eta abarren kaka.
—Ardi korotzez beteta zeuen bidia.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 0-6 urte bitarteko umeendako liburuak**
- 'Ez da erraza, katagorri' / Elisa Ramon; Rosa Osuna
 - 'Ilargi-adarra' / Txabi Arnal; Susana Widmann
 - 'Arrantzalearen emaztea' / Manuela Rodríguez; Joseph Rodes
 - 'Euli Fiririren festa' / Eva Mejuto; Sergio Mora
 - 'Amama eta aitita' / Chema Heras; Rosa Osuna
 - 'Zozoa' / Antonio Rubio; Isidro Ferrer
 - 'Mazapanezko gizontxo' / Raquel Méndez; Elia Manero
 - 'Hamelingo Txirularia' / Xosé Ballesteros; Samuel Ribeyron
 - 'Biblo' / Rai Bueno; Mariona Cavaza
 - 'Nire hortza nahi dut!' / Tony Ross
 - 'Garbitu eskuak' / Tony Ross
 - 'Izar bat amatxorentzat' / Nannie Kuiper; Jeska Verstegen
 - 'Maitagarria zarelako' / Guido Van Genechten
 - 'Lagun bidaian' / Erwin Van Den Arend
 - 'Lagun kalean' / Erwin Van Den Arend

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Lierni Zangitu
17an, 13 urte. Zorionak, potxola, eta muxu mordoa. Koadrilakoak.



ESKORIATZA
Mikel Murillo
19an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Celia Garcia
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Idurre Ezpeleta
23an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Davila
24an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Endika Urbarren
25ean, 9 urte. Zorionak eta muxu bat, gurasoen eta anai-arrebaren partetik.



ARETXABALETA
Ana Mari Llodio
25ean. Zorionak eta urte askotarako, okindegiko lagun partetik.



ARETXABALETA
Domi Lezeta
26an. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Carla Perea
26an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Alaitz Beltran de Heredia
28an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Eñaut, Manex eta etxekoak.



ARETXABALETA
Koldo Zubillaga
29an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Rosa Mari Aberasturi
Ekainaren 1ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amaia Bereizibar
1ean. Zorionak, ARETXAGAZETAKO langileen eta batzordekideen partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA

Zorion agurrak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!


Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!


Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Goienkaria
astelehenean, aste bukera osoa


ATREBENTZIAEZPADA/ Eragiñik euki dau eraikuntzakuek egitten dabitzen grebiek zure lanien?



JOSE JABIER AZKARATE
Arotza




XABIER IRURE
Iturgiñe




JOSEAN URIBETXEBARRIA
Kristalarixe



NEKANE QUINTAS
Jatetxeko jabe



LORENZO GONZALEZ
Margolarixe



JAIME MUJIKA
Aluminioko arotza

Ez, gure kasuen ez dou eragiñik izen guk oso lan gutxi egitten douelako eraikitten dabitzen etxe barrixetan. Badakit batzuek arazuek izen dittuela, baiñe gu normal gabitz lanien.

Bai, apur bat, lan batzuk geldi daukou-eta. Lanien bagabitz, baiñe gremixo batzuen lana lotute dauenez guregan be eragiñe dauko; igel-tseruek ez badie faten lanien guk ezin dou aurrera egin.


Asko ez. Lokal batzuetara ezin izen gara fan, baiñe gairakuen normal gabitz lanien. Dana dala, luzera eginez gero grebiek eragiñe euki leike, obra batzuetan egin biher dogu lan-eta.

Bai, guk asko igerrri dutzou bai jatetxien, bai tabernan. Gremixo askotako langilliek etorten die normalien pintxuek jatera eta bazkai-tten, eta azken astiotan ez da iñor agerketan.

Bai, geldi nau-eta. Ez dot arazorik izen, baiñe pike-tiek etorten die lanien dabil-tzenengana eta badaezpada geldi nau. Ni autonomue naz eta ez dot uste zeresanik dauketenik greba hontan.

Zeozer bai, baiñe gu metal arlokuek gara, eta zuzenien ez. Lanien normal gabitz, baiñe obretara ezin gara fan. Piketiekin momentuz ez dou arazorik euki, eta gure be ez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BELARRA LUZE BIDE BAZTERRETAN Udaberria aurrera doa eta bazterretako belarrak gora egin du. Zelaietan dagoena baserriarrek moztuko dute, baina errepide bazterretako belarrak ere gora egin du, eta hori ere moztu beharra dago. Bada, erantzukizuna daukanak motz dezala, baina lehenbailehen; izan ere, dagoeneko auto gidariei traba egiten hasita dago. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Kale agerraldia Aretxak

Kale agerraldia egiteko deitu zuen Aretxa plataformak, udal hauteskundeak izan eta urtebettera.

ASTEAN BEHIN /05

Jaunartze garaia

Maiatzean jaunartzea egiteko garaia da, eta aurten 38 neska-mutikok egingo dute herrian.

KIROLAK /06

Igor Gordobil entrenatzailea

UDako preferente mailako entrenatzailea izan da Igor Gordobil, eta agur esango dio taldeari domekan.

ASTEKODATUA

38

NESKA-MUTIKOK EGINGO DUTE JAUNARTZEA

Aurten, 13 neska eta 25 mutilek egingo dute jaunartzea herrian; guztira 38k. Joan zen domekan egin zuten 18k eta oraingoan 19k egingo dute. Ekainaren 6an bakar-rak egingo du, Galartzan.

BESTEKEESANA

“

GOITBren kasuan, euskaraz komunikatzea eta, hedabide garen heinean, bertakoaren berri ematea. Horrek, dena den, ez du esan nahi gureari bakarrik begira egon behar garenik, Euskal Herri osorako produktuak sortu ahal ditugu. Gurean Iluntzean elkarrizketa sailoa izan daiteke adibidea. Azkenik, bailara kontzeptua lantzea ere bada gure egitekoa.

Orain gutxi arte kompetentzia moduan ikusi gaituzte tokiko telebistak ETBk, ez ziren laguntzeko prest, behintzat ez arduradun legez zeudenak. Guk, eguneroko lanean harremana dugu ETBekin: irudiak elkartrukutzen ditugu. Orain, lehenengo aldiz, ETBk programazio eskaintza egin digu: zenbait saio erosteko aukera izango da.

OIHANE AGIRRE
'Asteon' aldizkaria/04-05-21

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



*M-22:
hainbeste erreberentzia*

Bai, nik ikusi nuen; ez zuzenean ezta osorik ere, baina ikusi nuen mendeko ezkontza deitu dutena. Emaztegai eta senargaia, gonbidatuen pamela eta jantzi ederrak, (beno, eta ez hain ederrak...). Larunbatean, Madrilén egin zuten euriak, neguko egun txarrenetakoa zirudien, baina eguraldiak ez du errepublika eta monarkiaz ulertzen eta gauzarik badago guztiontzat berdina dena, heriotzarekin batera, hori eguraldia da.

Segurtasun neurri handiak hartu zituzten, 4 metro bakoitzeko polizia bat; handiak bai, baina ez oso onak: Almudenaraino heltzeko koronel mozarrotzarekin nahikoa omen zen.

Bestalde, asko hitz egin izan da ea Letizia egokia ote zen Espainiako monarkiarako edo ez, ea Eva norvegiarra edo eta Sartorius zen egokiago. Ez litzateke hau baino lehenago

galdetu beharko, ea egoki al den monarkiarekin jarraitzea? Zerbaitetarako balio ote duen? Zeinen probetxurako?

Eta ezkontza gutxi balitz, orain txangoa penintsula osotik. Txundituta utzi nauena Cuencako emakume

baten erreakzioa izan da, esanez, ez zekiela nola ordainduko zion Cuencako herriak, Felipe eta Letiziari Cuencara eginiko bisita. Baina zer egin dute bi hauek Jaungoikoak balira bezala tratatuak izateko? Nik ez dut

ulertzen. Ez al gara ba bizi, emakume eta gizon guztiak berdinak garen gizarte batean? Hainbeste erreberentzia eta tontakeri, denok berdinak garela suposatzen den gizarte batetan, ez ditut ulertzen... akaso erreberentzia gehiago merezi al du jaiotzean printzea dela esan dioten Felipe batek, artikulua hau irakurtzen ari den beste edonork baino?

“Ez al gara ba bizi, emakume eta gizon guztiak berdinak garen gizarte batean?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Sarixek asko

Greñak, protesta ekintzak, siñadura batzietan... besteik ez da entzuten azken aldixen komunikabidietan. Ez dakit ba, ondo gabitzen... Hala eta be, txapelketak eta lehiaketak aittketan hasiko naz, izen be horretxeik emuten duskue poztasun haundi-xenak eta. **Ane Idigoras** aretxabaletarrak Arrasateko Emakumeen Txokoa antolatutako erretratu lehiaketan sarixe jaso dau. Burdiñie lanketan dabillen emakume bati atara eutzen erretratu, eta emakume eta gizonen arteko berdintasune onduen agerketan dauen erretratu dalako emun dutze sarixe. Zorionak ba!

Txapelketari dagokixonez Aratz elkarteak aittetu biher. Izen be, Donostia aldien igeriketa txapelketa baten hartu daue parte, eta domiñaz beteta etorri die. Aurten, gaiñera, **Iker Arejolaleibar**, **Iñaki Iturbe** eta **Juan Carlos Barkero** aretxabaletarrekin batera beste bi be fan zien, bixek Duranako etxien bizi dienak. Guztire 12 domiña ekarri dittue herrire. Ez dau txarto, ez horixe. Urtero ekarten daue sariren bat, eta aurten iñoiz baiño gehixau. ARETXAGAZETAko kazetarixekin egon biherko die galdera batzuk erantzuteko, eta akaso telebisiño kamara aurrien berba egitten be ohittu biherko die laster.

KALE AGERRALDIA/ Gainerako zinegotziek dituzten hitza eta botoa gura dituzte Udalean Aretxa plataformako kideek Kale agerraldia egin zuten martitzenean, Aretxa plataformak deituta, Udaleko egoera salatzen

MIRARI ALTUBE

Urtebete pasatu da udal hauteskundeak egin zirenetik, eta herrietan sortu ziren plataformek ilegalizatuta jarraitzen dute. Egoera hori salatzen kale agerraldiak egin zituzten martitzenean ibarreko herri guztietan; baita Aretxabaletan ere.

Udalan parte-hartzerik ez dutela salatzen deialdia egin zuen Aretxa plataformak, eta *Urtebete apartheid politikoa pairatzen; Herriaren nahia errespetatu zioen pankartaren atzean* batu ziren 20 bat herritar martitzen ilunkaran udaletxe aurrean. Ibarreko gainerako herrietan ere egin zituzten kale agerraldiak.

HITZA ETA BOTOA GURA DITUZTE

Udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete pasatu da, eta Aretxa plataformak ilegalizatuta eta eskubide barik jarraitzen duela salatu zuten. Josu Atxagaren esanetan, Aretxako kideek Udalan parte hartu ahal izateko saiakera batzuk egin ziren hasieran, baina plataformaren proposamena atzera bota zuten, ez zela egokia eta erreala esanez.

Horren ostean, beste akordio batzuk lortzen saiatu ziren, Josu-



Aretxako kideek Udalan parte hartzerik ez dutela salatzen kale agerraldia egin zuten hainbat herritarrek martitzenean.

ren esanetan, baina ezin izan zuten zinegotzi kargurik hartu. Hortaz, 600 herritar baino gehiago geratu ziren ahotsik gabe, Aretxako kideek ez dutelako ez botoirik, ez eskubiderik.


Aretxa plataformako kideen nahia da Udalak zinegotzi izaera onartzea, horrela, euren hitzak eta botoak ere gainerako zinegotzienen balioa izan dezaten. Espainiak ezarritako legeak oztopoak

jar ditzakeela badakite, baina herri mailan lan egin daitekeela diote. Horretarako, baina, borondatea azaldu behar da, euren esanetan, eta pausoak ematen hasi behar da aurrera begira.



Herriko harategiek hiltegiaren aldeko sinadura batzen

Zubillagako hiltegia ixteko asmoa dauka Mankomunitateak, eta ibarreko abeltzainak oso kezkatuta dabilta. Hainbat protesta ekintza egin dituzte dagoeneko. Orain, herriko harakinek ere euren kezka eta desadostasuna adierazi gura dute, eta hiltegiaren aldeko sinadura batzea jarri dute abian. Herriko harategi guztietan dituzte orriak herriarrek sina ditzaten. /M.A.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxe: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✿ Liburuak ✿

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

JAUNARTZEAK/ Gehienek parrokian egingo dute, eta batek Galartzako elizan

Jaunartzea 38 neska-mutikok egingo dute aurten herrian

M.A.

Maiatza jaunartzeak egiteko hilabetea izan ohi da, eta hala, joan zen domekan egin zuen parrokian lehenengo taldeak. 18 neska-mutikok egin zuten orduan, eta oraingoan beste 19k egingo dute. Ekainaren 6an, bestalde, Galartzako elizan egingo du batek.

Aretxabaleako Andre Mariaren Zeruratzeko parrokian maiatzean egin izan dituzte jaunartzeak, eta aurten ere halaxe egingo dute 38 neska-mutikok.

FAMILIAKO KATEKESIA

Jaunartzea hiru urteko lanaren ostean jasotzen dute neska-mutikok gure herrian. Aurretik, baina, familiako katekesia lantzen dute parrokiako katekisten laguntzarekin. Orain dela urte batzuk hasi ziren familiako katekesia ematen, eta parrokiako arduradunak pozik daude lortutako emaitzekin. Hilean behin gurasoekin batzen dira katekesiko arduradunak, eta gero gurasoek seme-alabekin lantzen dituzte gaiak etxean. Jarraipena egiteko, bestalde, neska-mutikoekin ere



18 neska-mutikok egin zuten jaunartzea domeka honetan.

KOLDO ZUBILLAGA

batzen dira katekistak hileko beste egun baten.

Hiru urtean lanean jardun eta gero jaunartzea egingo dute 8 eta 9 urteko 38 neska-mutikok.

Katekesian dabilzan gainerakoei kurtsua bukatuko dute egunotan. Horretarako otoitzaldia eta merienda izango dituzte Aozaratzan.

Zabalik dago aurtengo udaleku irekietarako izenemate epea

M.A.

Udaleku Kultura Sailak antolatuta uztailan egingo dituzte udaleku irekiak. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, ekainaren 1era arte, hain zuzen ere. Kultura etxera eroan behar dira izen emate orria, eta Euskadiko Kutxako diru sarreraren egiaztagiria.

Orain dela urte batzuk hasi ziren udaleku irekiak antolatzen Aretxabalean, eta ordutik hona arrakasta handia izan dute urtero.

Aurten ere egingo dituzte, uztailaren 5a eta 23a bitartean, baina parte hartzeko lehenengo izena eman behar da.

IZENA EMATEKO BETEBEHARRAK

Martitzenera, ekainaren 1era, bitartean egongo da zabalik izena emateko epea, eta kultura etxetik pasatu behar da 11:00etatik 13:00etara bitartean. Hona aurkeztu beharrekoak: izenemate orria, Euskadiko Kutxan 35 euro sartu diren egiaztagiria eta lehen aldiz izena ematen dutenek hau-

rra agertzen den famili libururaren orriaren fotokopia.

BALDINTZAK ETA ORDUTEGIA

Aurtengo udaleku irekietan 1990 eta 2000. urte bitartean jaiotako neska-mutikok parte har dezakete. Azken horiek, hau da, 3-4 urte dituztenek, goizez bakarrik joango dira. Ordutegia honakoa izango da: 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara.

Uztailan aspertu barik ondo pasatu gura duenak badaki non eman behar duen izena.

LABUR

Kontsumo Bus 2004 ekimeneko autobusa etorriko da herrira eguenean, ekainak 3

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak Kontsumo Bus 2004 ekimena jarri du abian. Iaz egindako kanpainari jarraipena eman gura diote, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 40 herritara joango da aipatutako autobusa. Ekimenaren helburua da kontsumitzaileari informazioa eta heziketa ematea. Hori horrela, ikasleendako tailerrak, hitzaldiak eta helduendako mintegiak egongo dira, baita kontsultak egiteko informazio gune bat ere. Datoren eguenean, ekainak 3, egongo da Kontsumo Bus 2004 Aretxabalean, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

'Kutsidazu bidea, Ixabel' antzezlanaren eskainiko du Gorringo taldeak gaur kirol etxean

Bigarren aldiz eskainiko du Gorringo antzerki taldeak *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanaren herria. Iazko Andramaxetan ekarri zuen lehenengo aldiz Kultura Sailak, baina Iturrigorri frontoia gainezka egon zen orduan, eta herritar asko ezin ikusita geratu zen. Hori horrela, bigarren aldiz ekartzea erabaki du Udalak, eta gaur izango da emanaldia kirol etxean, 22:30ean. Sarrerak bertan hartuz gero 8 euro ordaindu behar da, aurrez, ostera, 6 euro.

TXUTXU-MUTXUA



Aurtengo Santa Rita eguna arrosa gutxirekin


Joan zen zapatuan izan zen Santa Rita eguna, jai handia Aretxabaleako agustindarren elkarteari. Urtero ospatzen dute herritarrekin, eta aurten ere bi meza esan dituzte, bata goizean eta bestea arratsaldean. Meza bukatutakoan bedeinkatutako arrosak banatu izan dituzte, baina aurten gutxi loratu dira, eta ez dute guztiei ematerik izan; horrela, bada, gaixoendako eta beharrean daudenendako gordetzea erabaki zuten. /M.A.

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43



Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

TXIRRINDULARITZA

Antxon Anduaga bigarren postuan sartu zen Pedro Guenetxea proban

Domeka arratsaldean egin zuten txirrindularitza proban 119 kadetek hartu zuten parte

M.A.

Joan zen domekan egin zuten Pedro Guenetxea memoriale, eta Antxon Anduaga txirrindulari aretxabaletarra bikain ibili zen. 119 kadetek hartu zuten parte, eta Antxon bigarren postuan sartu zen helmugan Beasaingo Julen Gonzalezen atzetik.

Ohitura da maiatzean Pedro Guenetxea memoriale egitea, eta hala, joan zen domekan egin zuten. Aretxabaleta eta Arrasate arteko ibilbidea egin behar izan zuten kadetek domeka arratsaldean.

ANTXON ANDUAGA BIGARREN

Domeka arratsaldean egin zuten Pedro Guenetxea txirrindularitza memoriale, Aretxabaletako Txirrindulari Elkarteak eta Dorletako Ama Eskolak antolatuta. Kadete mailako 119 gaztek hartu zuten parte aurten, tartean aretxabaletarrez eta arrasatearrez osatuta dagoen JMA taldeko zortzi txirrindularik. Aratxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Aretxabaleta ibilbidea egin behar izan zuten,



AITOR LIZARRALDE

Kadete mailako gaztetxoek hartu zuten parte txirrindularitza proban, 119k hain zuzen.

eta Antxon Anduaga aretxabaletarra bikain ibili zen. Bigarren postuan sartu zen helmugan, Beasaingo Julen Gonzalezen atzetik, eta hirugarren postuan Garikoitz Bravo sailkatu zen. Antxon Dorletako Ama Eskolako da, hortaz, antolatzaileak pozik zeuden egindako lanarekin. Ibarreko gazteen artean onena ere bera izan zen.

PEDRO GUENETXEAREN OMENEZ

Orain dela 9 urte hasi ziren antolatzen Pedro Guenetxea memoriale Aretxabaletan. Hain zuzen txirrindularitzaren alde lan asko egindako eta Dorletako Ama Eskolaren fundatzaile izan zen Pedoren omenez egiten dute proba, eta kadete mailako gazteek parte hartu izan dute.

FOTOKIROLA



Bi aretxabaletar Aizkorriko maratoian

Domekan egin zen Aizkorriko mendi maratoia. Mario Pelotti italiarra izan zen garailea, baina debagoiendarrak ere indartsu ibili ziren; Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra bigarren sailkatu zen. 34 debagoiendarrek hartu zuten parte, tartean bi aretxabaletarrek: Fernando Uribesalgo eta Juanma Martinezek. Juanma 68. postuan sailkatu zen, 5 ordu eta 20 minutu eginda, eta Fernando 87. lekuan, 5 ordu eta 27 minutu eginda. /M.A.

FUTBOLA

Erregionaleko bigarren mailako beste talde bat osatu gura du UDAk datorren denboraldirako

Preferente mailako futbol denboraldia aste honetan bertan bukatuko da, baina UDA kirol elkarteko zuzendaritza batzorde berria datorrenean pentsatzen hasita dago. Hori horrela, erregionaleko bigarren mailako beste talde bat osatu gura du hurrengo denboraldirako. Horretarako, baina, futbol jokalariek behar ditu. Hitzordurik ez dute jarri, baina interesa duten gazteek UDAko zuzendaritzarekin harremanetan jarri besterik ez dute, eta eurek argituko dizkiete zalantza guztiak.

Preferente taldeko entrenatzailea izan den Igor Gordobil arrasatearra, bestalde, agur esango dio domekan taldeari. Datorren denboraldian Bergarako taldea entrenatuko du. UDAko batzordeak, orain, entrenatzailea aurkitu beharko du.

PILOTA

Benjaminak, alebinak eta infantilak ere Udaberri Pilota Txapelketa jokatzeko dabilta

Senior mailako Errasti anaiez gain, herriko gainerako pilotariak ere Udaberri Pilota Txapelketa jokatzeko dabilta. Benjaminetan bi talde daude, eta Oñatira joaten dira txapelketa jokatzera; alebinetan bi maila daude, lehenengo urtekoak, gainera, final-laurdenetarako sailkatu dira. Infantilak, ostera, Zumaian dabilta txapelketa jokatzeko. Aitor Uribarren, Joseba Akizu, Gorka Perez de Labeaga eta Unai Gardoki daude taldean, eta aurrera doaz.

Lehenengo urteetan hainbat mutiko ibili arren, adinean aurrera egin ahala utzi egiten dute askok, Jose San Miguel pilotariaren entrenatzailearen esanetan, eta horregatik kadete mailako pilotaririk ez dugu herrian.

FUTBOLA

Burdeosera joan dira futbol torneo bat jokatzera Aretxabaletako hainbat mutiko

Almen Kirol Elkarteak antolatuta herriko hainbat mutiko, Eskoriatzakoekin eta Arrasatekoekin batera, Burdeosera joan dira aste bukaeran futbol torneo bat jokatzera. Urtero antolatzen dute Burdeosko Lessec herrian nazioarteko futbol torneo, eta Almengo alebin mailako talde bi eta infantil mailako beste bat han dira. Guztira 41 jokalarik eta 12 entrenatzaile eta antolatzaile joan dira. Gaur, egubakoitza, atera dira autobusean, eta bihar egun osoan izango dituzte partidua. Euskal taldeez gainera, Espainiako eta Portugalgo taldeek ere hartuko dute parte, eta bertako taldeak ere egongo dira. Bihar goizean, bestalde, beste autobus bat aterako da gurasoekin; guztira 58 joango dira semeak animatzera.

PILOTA

Errasti anaiek seguru asko ez dute aurrera jarraituko Udaberri Pilota Txapelketan

Euskal Herri mailako Udaberri Pilota Txapelketa jokatzeko dabilta Errasti anaiak. Aurreko astean Galdakaoko taldea izan zuten aurrez aurre eta galtzea tokatu zitzaion, 16-22. Hurrengo partidua Iruñan dute Oberena taldearen aurka baina seguru asko ez dira joango partidua askorekin dabilta-eta azken asteetan. Hortaz, partidura agertu ezean aurrera jarraitzeko oso aukera gutxi dituzte.

Debarroko txapelketan, ostera, aurrera doaz; eskoriatzarrei 9-22 irabazi zieten, eta hurrengo bergararrak hartuko dituzte.

ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABAETA



ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABAETA
Tel. 943 79 29 26

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABAETA

ERRETRATUZAHARRA

Gorpuzti eguneko prozesioa



Ez dira urte asko pasatu, 50 inguru erretratua atera zutenetik, baina erlijio kontuak bai aldatu dira, asko aldatu ere. Erretratua Gorpuzti egunean ateratakoa da. Elizak ekainaren hasieran ospatzen duen festa da; aurten, ekainaren 13an izango da. Oñatin, esaterako, festa handia izaten da, eta garai baten gurean ere egun berezia izaten zen. Gaur egun, elizara joango diren kristauak besterik ez dute jakingo.

Parrokiatik atera, agustindarren komentutik pasatu eta herrian zehar egiten zuten prozesioa orain dela 50 urte inguru. Jaunaren irudia ateratzen zuten prozesioan. Tren geltokian aldare txiki bat jartzen zuten, eta geldidunea egiten zen otoitz egiteko. Durana kaletik behera berriz parrokiara etortzen ziren gero, prozesioa bukatzeko. Zaindariak joaten ziren Jesusen irudiaren alboetan: aurrean doan Manolo Zubillaga, esaterako, Tarcisios taldeko kidea zen, eta atzean dagoen Pascual Arenaza Gaueko

Gurtzakoa (Adoracion Nocturna). Neskabila bi, ostera, Amabirjina janzten ziren eta gainerakoak aingeru. Aipatutako hauen atzetik, bestalde, mezan parte hartzen zuten kristauak joaten ziren, orduan herritar gehienak.

Erretratukoak, aurretik atzera ilaran doazen neskatalak: Arantza Arenaza, Mila Zubizarreta, Mila Urzelai, Aurora Iriarte eta Amparo Asensio.

Mutilak: Manolo Zubillaga aurrean, Luis Etxebarriarteun eta Jose Antonio Zubizarreta meza-laguntzaile-

ak, eta Pascual Arenaza atzean. Atzeko neskatalak: Felisa Pagaldai eta Maria Dolores Urzelai. Emakumea, berriz, Josune Lopez de Armentia.

Argazkia: Puri Beltran de Heredia


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Durana kaleko Etxeandiaren janari denda

Denda txikiei sarritan lekua kentzen diete handiek, eta, hain zuzen ere, urte askoko historia geratzen da atzean denda ixterakoan. Hori gertatu zitzaion Durana kalean zegoen Etxeandiaren janari dendari. 50 urtetik gora egin zituen zabalik; izan ere, Isabel Etxeandiak 1946. urtean zabaldu zuen. Hasieran, gainera, kazuelak eta bestelakoak saltzen zituen.



≈ 1995 1946an zabaldu eta 1997 inguruan itxi zuen Etxeandia janari denda Isabelek. Dendarekin batera kontu ugari ere isildu ziren.



2004 Alfredo Meabek kioskoa izan zuen Etxeandiaren dendaren lokalean 4 urtean, baina 2003ko martxoa ezkeru hutsik dago lokala.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a / 167. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Aldundiak autobideak kaltetutakoen alegazio gutxi batzuk hartu ditu aintzat

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aste honetan Foru Aldundiko teknikari batzuk herrian izan dira, autobidearen kontrako hainbat alegaziori erantzuten. Hala ere, bisitaldia berandu heldu da, eta ez da nahikoa izan, kaltetuen iritzi. Gainera, lanak aurrera doaz, lurjabeen baimenik gabe.

Astelehenean, hilak 24, Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat teknikari herrian izan ziren. Izan ere, kaltetuekin elkartu ziren, autobideari aurkeztutako hainbat alegaziori erantzuteko.

KALTETUTAKOEN SALAKETAK

Baina autobideak kaltetutako eskoriatzarrak ez dira gustura geratu. Haien esanetan, aurkeztutako alegazioetatik oso gutxi hartu ditu kontuan Diputazioak: "Nabarmenak diren alegazio gutxi batzuk bakarrik onartu ditu Aldundiak", adierazi dute.

Baina ez da egin duten salaketa bakarra. Izan ere, Aldundiko ordezkariak berandu etorri dira herrira; beraien ustez, kaltetuen deiarri erantzuteko denbora luzeegia behar izan dute. Gai-



Herriko hainbat kaltetu Donostiara alegazio epea luzatzeko eskatzera joan ziren apirilaren 26an.

nera, datorren hilaren lean, teknikari horiek beraien iritzia eman behar diete Aldundiko diputatuei, eta egun horretan hartuko da alegazioen gaineko azken era-

bakia. Horregatik, denbora luze-agoa eman beharko litzaieke, kaltetuen ustetan.

Bestalde, alegazioen auzia konpondu gabe egon arren ere,

Aldundiko zenbait topografo kaltetuen lurretan sartu eta dagoneko lurak neurtzen hasi dira, inolako baimenik gabe. Gainera, hainbat zuhaitz moztu ei dituzte.

Alegazioei buruzko azalpena berandu iritsi delako kaltetuak haserre daude

Jabeei baimenik eskatu gabe Aldundiko topografoak beraien lurretan sartu dira

Ekainaren lean teknikariek alegazioen gaineko iritzia emango diete diputatuei



Ezeizako areto-futboleko neskak finalerdian

Eskola kirolaren barruan, Luis Ezeiza ikastetxeko neskak areto-futbol partida jokatuz zuten zapatuan. Donostian aritu ziren alebin mailako neskak, eta finalerdia jokatuz zituzten bertan. Lazkao izan zuten aurkari, baina eskoriatzar gazteek ezin izan zioten talde horri irabazi. 0-4 galdu zuten areto-futbol taldekoek, baina hala ere, pozik daudela adierazi dute, finalerdia jokatzeak aukera izan dute eta. Datorren urtean hobeto egiten saiatuko dira.

LABUR

San Pedro jaietako leloa aukeratuko dute lehiaketa bidez

Martitzenean, hilak 31, amaituko da San Pedro jaietako leloak aurkezteko epea. 13 urte baino gehiagoko eskoriatzarrak hiru eta bost bitarteko lagun taldeetan har dezakete parte. Udaletxera edo kultura etxera eraman beharko dituzte lanak. Ekainaren 8an iragarriko dute talde irabazlearen izena, eta afari bat ordainduko diete San Pedrotan. Bestalde, beste esaldi batzuk aukeratu eta pegatinak egingo dituzte; talde horiek 40 euro jasoko dute ordainetan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak 112

OHARRAK

KARTEL LEHIAKETA

Aurtengo San Pedro jaietako kartelak aurkezteko azken eguna ekainaren 4a, egubakoitza.

EZEIZAKOAK SARARA

Zapatuan, Ezeizako 180 guraso eta ikasle elkarrekin joango dira euskara bultzatzea helburu duen txangoa. Bazkaldu, eta herri kirolak egingo dituzte; eta Larrun mendira igoko dira trenean.

ZAZPI ELIZATEEN MARTXA

Herriko zazpi elizateetara lehenengo irteera antolatu dute domekarako. 7:30etan irtengo dira herriko mendizaleak plazatik.

AXTROKIRENAGENDA

MANIFESTAZIOA IRUÑEAN

Ekainaren 5ean hizkuntza eskubideen aldeko manifestazioa egingo da Iruñean. Txartelak Axtrokin eta Tortolis ludotekan; 6 euro bazkideek, 7 gainerakoek.

ARIZMENDIK ANTOLATUTAKO AZOKA ETA ASTE ZAPATISTA NAGUSI EKAINEAN

Magia eta umorea nagusi gaurko helduentzako ipuin kontaketan

Z.V.M.

Ekainean zehar ere hainbat ekimen eramango dituzte aurrera herrian: hitzaldiak, musika emanaldiak...

Maiatzari amaiera emateko, Nuni-la ipuin kontalaria arituko da gaur, 22:30ean, Unibertsitatean. *Cuentos para antes de despertar*, hausnartzera bultzatzen duen helduentzako saioa.

ASKOTARIKO AUKERA EKAINEAN

Askotariko aukerak izango dira herrian datorren hilean. Lehendabizikoa hilaren 3an, 19:30ean, kultura etxean egingo den hitzaldia. *Minbiziaren oraina eta geroa* izeneko berbalbian Jose Antonio Alberro Donostiako Onkologikoko zirujaua arituko da hizlari lanetan.

Bestetik, Arizmendik antolatutako *ferixie* ospatuko dute ekainaren 5ean: baserriko produktuak, artisautza, herri kirolak...

Hilaren 10ean, antzerkia, musika eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna egingo da Ramon Agirre aktorearen eskutik.

Ekainean herrian egingo diren hitzaldiek osasuna izango dute hizpide

Zazpi gezur txiki aurkeztuko du. Ekainaren 12an, Herri Eskolaren jaia ospatuko da, Luis Ezeiza Guraso Elkartekoek antolatuta. Bertan, kirola, jokoak, bazkaria eta dantzaldia egingo dira. Guraso Eskolak ez du atsedunik hartuko datorren hilean, eta Acabe taldearen eskutik elikadura arazoei buruz mintzatuko dira, bai anorexia baita bulimiari buruz ere, esaterako.

ASTE ZAPATISTA

Aste Zapatista egingo da Eskoriatzan urteko seigarren hilabetean, ekainaren 14tik 20ra, hain zuzen ere. Gazte Asanbladak eta Txia-pasekin Elkartasunerako Euskal Plataformak antolatu dute ekime-



ARTIBOIA

Datorren astean egingo den azokan giro bikaina egotea espero dute.


na, eta beraien helburua da Txia-pasko errealitatea herrian ezagutaraztea; horretarako, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, ipuin kontaketa eta kontzertuak egingo

dira Eskoriatzan, besteak beste. Kultura etxean *Mugimendu Zapatista eta Txiapasen egindako egitasmoak* erakusketa jarriko dute, ekainaren 15etik ekainaren 20ra.

Ikasleak primeran aritu ziren bertsoetan

Z.V.M.

Martitzenean, Ezeizako eta Almengo hainbat ikasle bildu ziren, ikasturtean zehar bertsoaritzari buruz hartutako ezagutza praktikan jartzeko. Ederto aritu ziren.



Z.V.M.

Ikasleak fin aritu ziren.

Aretoa lepo bete zen. Ekimenaren lehenengo zatian, 18 ikasle igo ziren eszenatokira, eta ber-

tan, aurrez prestatutako hainbat bertso abestu zituzten. Ondoren, Aitor Mendiluze bertsolaria eta Arizmendiko bi ikasle igo ziren. Inprobisatutako elkarrizketa izan zuten bi neskek, eta horiek esandakoak bertsoa moldatu zituen irakasleak.

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Bizkaian eta Araban lehenago hasi ziren proiektu hori aurrera eramaten, baina Gipuzkoan iaz hasi ziren, eta bailarako ikastetxeetan hasi ziren ekimenarekin.


Datorren ikasturteari begira, eskolez gain, gazteak bilduko dituzten bertso-eskolak sortu gura dituzte ibarrean, eta horrela bertsoaritzara sustatu.

LABUR

Rosa Lasagabaster bigarren Euskadiko Txapelketan

Aizkorriko mendi maratoiaren hirugarren edizioa egin zen zapatuan. Bailarako jende ugari hartu zuen parte; Rosa Lasagabaster eskoriatzarra tarteko. Hirugarren aldiz parte hartu du aurtien Rosak. Belaunean min hartu zuen azken hamar kilometroetan, eta ondorioz iaz baino ordu erdi gehiago behar izan zuen amaitzeko. Hala ere, Euskadiko Txapelketan bigarren amaitu zuen. Nahiz eta penaz egon, oso gustura agertu zen egindako lanarekin.

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea



ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA



Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

AURREKONTUA JAKINDA, ERABILERA ZEHAZTU BEHARKO DUTE

Soran gaztelua berrizteko lanen kostua finkatuko du arkitekto batek

Z.V.M.

Ohiko osoko bilkura egin zuten atzo, eguena, Gatzagan. Hainbat gai landu zituzten bertan. Besteak beste, Indiano Etxearen birgaiketari eta Arlabango lurretan egin beharreko ingurumen azterketari buruz egin zuten berba herriko udal ordezkariak.

Atzo maiatzeko osoko bilkura egin zuten Leintz Gatzagako udal txean. Udal ordezkariak bildu eta aurrez prestatutako gairerendari buruz aritu ziren.

Aurreko akten onespina izan zen horietariko bat, eta horrekin batera, hainbat faktura eta gastu onetsi zituzten Gatzagan.

San Migel enparantzan dauden garajeetako plazak erabili ahal izatea da Udalaren egitasmo bat, eta horretarako espedientea adostu dute.

INDIANO ETXEAREN BIRGAIKETA

Maiatzeko osoko bilkuran adostutako beste kontu bat Indiano Etxearen berriztapen kontuak izan dira. Nahiz eta aurreko legealdietan asmo bera izan duten, oraindik gauzatu ez den egitasmoa da. "Egoera kaxkarrean dago eraikina, eta konpondu ezean, azkenean eraitsi egingo da", adierazi du Joxerra Perez alkateak.

Soran gazteluaren lanak egiteko behar izango den diru kopuru zehatza jakin gura du Udalak. "Horregatik, proiektuaren aurrekontua egin behar da", adierazi du Perezek. Nahiz eta aurretik eginda dagoen —duela hamar bat urte— lanen kostua handitu egin da urtetik urtera, eta gaur eguneko balioa jakin gura dute. Arkitekto bati emango diote lan horren ardura.

"Behin aurrekontua jakinda, finantziario modua bilatu behar dugu", azaldu digu Joxerrak. Udalak berak ordaintzeko moduko lana izango balitz, hainbat proiekturi buruz egin da berba. Besteak beste, etxebizitzak egin edota zenbait bulego Indiano Etxearen ezartzea.



Zein erabilera emango zaion zehazteke dago oraindik, baina ez dute ideiarik baztertzen.

San Migel enparantzako garajeetako plazak erabilgarriak izatea gura du Udalak

Aurreko legealdietan eraikinararen erabilera modu desberdinak eztabaidatu ziren. Horiatariko bat hotela ezartzearena izan zen, eta ez dute ideia baztertzen oraingo udal agintariak.

ARLABANI BURUZKOAK

Bestalde, Arlaban eremuko plan bereziak ingurugiroan izango duen eraginaren ebaluaketa egi-

"Indiano Etxea konpondu ezean, azkenean erori eta herriko historiaren zati bat galduko da"

teko, lanen esleipena egin zuten ohiko osoko bilkuran.

Ingurugiro-inpaktuari buruzko azterketa egin behar dutela adierazi dute Gatzagako udal ordezkariak. Gure Ametsa, Gaztainuzketa, Gatzaga-Gain... artean zer egin daitekeen jakin gura du Udalak. Horregatik azterketa egin beharra azpimarratu dute. Hala ere, egitasmoaren hasiera-onarpenera ados-

Aurrekontuaren arabera, etxebizitzak, bulegoak, zein hotela egin daitezke Olanen

tea funtsezkoa da azterketa bideratu ahal izateko. Hori izan da osoko bilkuran landu dutena.

Hala ere, egitasmoa ez da errepidea konpontzeko proiektua; hori ez dagokio herriko Udalari. "Baina Arlabaneko lurrak berdintzeko 600.000 euro bideratuko dituztela jakin dut", adierazi du Joxerrak. "Hala ere, niri ez didate ezer jakinarazi", gaineratu du.

LABUR

Garra enpresa izan zen gasari buruz hitz egiten

Pasa den zapatuan, maiatzak 22, Garra gas instalazio enpresako hainbat kide herrian izan ziren. Herrian gas naturala sartu gura du Udalak. Hala adostu zuten aurtengo aurrekontua onartu zutenean; ur eta gasaren hornikuntza sare-rako 15.000 euro bideratu dituzte. Horregatik, herriko 50 bat lagun elkartu ziren Antzuolako enpresako langileen azalpenak entzuteko. Propano gasa zer den eta nolako abantailak ekarriko dituen argitu zieten herritarrei. Horrekin batera, etxez etxe joateko asmoa zutela adierazi zieten gatzagarrei, sistema hori gura dutenak zenbat diren zehatz jakiteko.

"Gatzagako Udalak lanak egiteko baimena eskatu zuen, eta baiezkoa ematen digutenean hasiko gara gas sarea eraikitzen" adierazi digute udal ordezkariak. Bitartean, itxaron egin behar.

Datorren egunean irekiko dute Gatzaga-Gain jatetxea

Gutxi gorabehera urte erdiz itxita egon ondoren, datorren astean irekiko ditu berriz atak Gatzaga-Gain jatetxeak. Bi eskoriatzarrek hartu dute lokala. Nerea eta Juan Luis Eraña anai-arrebak dira, eta batera egingo dute lan. Jatorduak prestatuko ditu Nereak. Izan ere, sukaldaritza ikasketak egin ditu eskoriatzar honek, eta bere kontura lan egin gura zuen. Horrela, anaia-ri bere asmoen berri eman eta elkarrekin hasi dira.

Datorren egunean, ekainak 3, irekiko dute Gatzaga-Gain bezeroentzako. Hala ere, jatetzeko kontuetan lagundu dieten adiskideekin ekimen pribatuen bat egin gura dute. Baina esan bezala, lagunentzako hitzordua izango da bakarrik. Gainerakoek, hurrengo egunera arte itxaron beharko dute.

ALZA

- Sukaldéko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainerako informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



GOITBko aurkezle izan nahi?

Interesatuta egonez gero, deitu 943 71 23 95 telefono zenbakira eta utzi izen-abizenak eta telefono zenbakia.
Laga lotsak alde batera eta deitu!

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGVNEKO MENYAK
OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :: 943 79 06 57

BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84



Mitartegarai

Baserri turismoa
eta taberna

Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezzeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Asteleneetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA